**URDULIZKO ERAIKIN PUBLIKOETAKO INSTALAZIOAK GARBITZEKO ETA KONTSERBATZEKO ZERBITZUAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAK**

## 1. PLEGUAREN HELBURUA.

Jarraian zerrendatuko ditugun eraikinen garbiketa-zerbitzua emateko gutxieneko baldintzak zehaztea da kontratu honen helburua, Baldintza Teknikoen Pleguan ezarritako baldintzen arabera. Kontratu administratibo honen xede den zerbitzuak Plegu horretara egokitu behar du eta kontratu honen parte izango da, galdagarritasunari dagokionez. Ondorioz, aipatutako Pleguak kontratu-izaera izango du, derrigorrean.

Ingurumena errespetatzen duten metodoak, praktikak eta produktuak erabiliko dira zerbitzu hau gauzatzeko. Eta, beste gauza batzuen artean, hondakinen kudeaketa egokia egingo da, eraikinetako hondakinen gaikako bereizketa-sistema mantenduta.

## 2. JARDUKETA EREMUA

Honako hauek dira udalaren instalazioak, zentroak edo bulegoak:

- UDALETXEA
- ELORTZA ESKOLA PUBLIKOA
- HAURRESKOLA
- KULTUR ETXEA
- FUTBOL ZELAIA
- UDAL BRIGADAREN PABILOIA
- PROBALEKU KIROLDEGIA
- GAZTELEKU
- NAGUSIEN ETXEA
- TORREBARRI ERAIKINA (INOLA)
- IPARRALDE KIROLDEGIA

I. eranskinean agertzen dira horien ezaugarriak.



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

## 3. LANAREN ANTOLAKETA.

### 3.1. Ohiko zerbitzuak eta aparteko zerbitzuak:

Honela banatzen dira eman beharreko zerbitzuaren baitako zereginak:

**OHIKO ZERBITZUAK**

Ohiko zerbitzua esaten zaio zentroaren ohiko jardueraren baitako garbiketari, bai egunero erabiltzen diren espazioetan, bai noizean behin erabiltzen direnetan.

- Eraikinaren ohiko garbiketa-lanak (adibidez: zoladurak, bainugelak, eskudelak eta barandak, altzarien eta ekipo informatikoen garbiketa, office gela...).
- Hormen eta sabaien garbiketa-lanak.
- Kristalen, gortinen eta pertsianen garbiketa-lanak.
- Argi-puntuen garbiketa-lanak.

**APARTEKO ZERBITZUAK**

Salbuespenezko arrazoiengatik presaz eta berehala egin beharreko ohiz kanpoko zerbitzuak dira.

Enpresa lizitatzaileak prezio unitario bat eskainiko du (€/h) zerbitzu horiengatik, eta aparte fakturako dira. Horretarako, gehienez urtean 40 orduko poltsa bat gaituko da. Lan horiek gauzatzea Udalarekin adostu behar da, eta kontratuaren arduradunaren oniritzia behar da.

lan hauen barruan, aparteko zerbitzutzat hartzen da kultur etxeko aretoa eta bainugelak garbitzea, urteko programaziotik kanpo igandeetan ekitaldiak egiten direnean. halaber, probalekuko aldagelak eta bainugelak igandeko partiden aurretik garbituko dira, aparteko garbiketa-zerbitzuen barruan.

### 3.2. Alderdi orokorrak



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Zentroen garbiketa-lanak lanorduetatik edo eskola-orduetatik kanpo egingo dira, Urdulizko Udalak kontrakoa esan ezean.

Hezkuntza-zentroen garbiketa orokorrak horien oporraldietara egokituko dira, ikasturtearen hasieran instalazioak egoera ezin hobean egon daitezen. Hortaz, eskola-egunetatik kanpo egin beharko dira lan horiek. Mantentze-lanak egiten badira, lanak amaitutakoan egingo da garbiketa, behin.

**3.3 OHIKO ZERBITZUAK GAUZATZEA**

**BARNEKO ZOLADUREN GARBIKETA.**

Zoladuretan egoten da bulego edo zentro batean sortzen den zikinkeriarik gehiena; hortaz, arreta berezia eskainiko zaio horiek mantentzeari. Hori dela eta, zoru bakoitzarentzat egokia den tratamendu bat ematea agintzen da, posible bada, gero errazago garbitu ahal izateko eta higiene maila handiagoa eta itxura estetiko distiratsuagoa lortzeko.

Orokorrean, eraikinen barnealdeetan zoruen ekorketa hezea egingo da, ekorketa konbentzionalaren ordez.

Zoladura porotsuak, hala nola terrazoa eta marmola, mekanikoki garbituko dira urez, eta aurrez desugertu egingo dira, erabilera handiaren eta jarraituaren ondorioz sortutako zikinkeria-hondarrak kentzeko (batez ere, erdialdeko zatietan eta paseko zatietan) eta tratamendu partzialen hondarrak kentzeko (emultsio-aplikazioen geruza ugari). Urtean behin beiraztatu egingo dira, kalitate goreneko produktu kristalizadore batekin eta altzairuzko artilearekin (terrazorako gogorra eta marmolerako fina), makina birakari baten bidez.

- Terrazoan ez da soluzio alkalinorik edo azidorik erabili behar, terrazoaren gainazala hondatuko delako eta distira galduko duelako. Orokorrean, detergente neutroak erabili behar dira.



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

- Marmolezko zoruak trinkoagoak dira, hau da, ez dira hain porotsuak eta absorbatzaileak. Ez da material azido edo alkalinorik aplikatuko, marmola kaltetzen dutelako eta itxura itzalia uzten diotelako.

Jende asko pasatzen den beste eremu batzuetan sarriago tratatu behar dira zoladurak. Hala, aldian behin, polimeroen emultsioak aplikatuko zaizkie (sakon garbitu ondoren).

Zoladura hauek ongi tratatuta egonez gero, errazagoa eta azkarragoa da eguneroko ekorketa hezea egitea. Orban iraunkorrak errazago kentzea ahalbidetuko du urez garbitzeak.

Eskailerei argizari gogor irristagaitza emango zaie. Dena den, gainerako gainazaletan produkturik irristagaitzena aukeratuko da beti, kalitatea mantenduta.

Beste zoladura gogor batzuetan (granitoa, gresa...) xurgagailua pasatuko da edo ekorketa hezea egingo da egunero. Urez garbituko dira, orbanak eta erantsitako beste zikinkeria-hondar batzuk kentzeko.

Hormigoiaren kasuan, terrazozko edo marmolezko zoruekin hartutako badaezpadako neurri berdinak hartuko dira.

Gresezko zoruetan ez da azidorik erabili behar, junturak kaltetzen dituelako (kare-esnea). Garbigarri urratzaileek zoru hauek marratu ditzakete. Poro gutxiko materiala da, baina akabera espezifikoak aplikatu daitezke.

Orokorrean, saihestu egingo da zoladuren mantentze-lanetan gainazala honda dezaketen detergente edo produktu azidoak erabiltzea. Gainera, zoladura guztietan, urez garbitu aurretik hautsa eta beste zikinkeria-hondar batzuk kenduko dira moparekin. Ahalik eta lehorren utziko da beti. Inoiz ez da ura bakarrik erabiliko; soluzio detergente bat gehituko zaio beti.

Zoladura sintetikoak, hala nola linolioa, sintasola, PVCa eta beste eratorri batzuk, bi modu hauetako batean tratatu ahal izango dira: makina birakari batekin sakon garbitu eta gero zoru horiek babesteko eta distira emateko emultsio bat aplikatzea; edo abiadura handiko makinarekin Spray teknika erabiltzea, eragiketa berean garbitzea eta



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

distira ematea ahalbidetzen duena. Zoladura horien eguneroko mantentzea ekorketa heze batekin egingo da, eta orban iraunkorrak urez garbituko dira.

Oso gastatuta dagoen eta askotan garbitu den linolioa oso porotsua da, eta zigilatu egin behar da beti. Garbigarri alkalino fuerteek kolorea eta testura aldatzen diote eta, ondorioz, saihestu egin behar dira.

Asfaltozko lauzak petrolioz eginda daude eta, hortaz, ez da disolbatzaile edo koipegabetzaile fuerterik erabili behar, bigundu eta hondatu egingo lituzketelako.

Inoiz ez da erabiliko base disolbatzailea duen argizaririk (ore gisako argizari gehienak horrelakoak izaten dira). Urezko base emultsionatzailea duten argizariak eta akaberak bakarrik erabiliko dira.

Biniloa nahiko inertea da eta haren gainean isuritako edo erabilitako material gehienek ez diote kalterik eragiten. Dena den, disolbatzaile fuerterik ez erabiltzea gomendatzen da. Ez da material oso porotsua, baina argizarizko geruza batez edo akabera sintetiko batez babestu ezean, marratu egiten da eta distira azkar joaten zaio.

Gomazko lauzen kasuan, disolbatzaileek eta base disolbatzailea duten argizariek azkar kaltetzen dituzte, asfaltozko geruzarekin gertatzen den moduan. Inoiz ez da erabili behar disolbatzaile bat edo base disolbatzailea duen argizari bat (ore gisako gehienek dute base disolbatzailea). Material horretan erabilitako koloreak ez dira oso egonkorrak garbigarri alkalino fuerteak erabiliz gero.

Egurrezko, parketezko edo kortxozko zoladuretan base disolbatzailea (ez ura) duten argizariak aplikatuko dira, gainazal horiei babesa eta distira emateko. Ondorengo mantentzea mopa lehorrarekin eta hautsa harrapatzeko produktuekin egingo da. Era berean, aldian behin ezkoztagailu elektrikoa erabili daiteke.

Pororik gabeko egurrezko zoruetan (lakatutako, bernizatutako edo plastifikatutako gainazalak) pixka bat bustitako trapu batekin erabiliko da mopa. Hilean behin, zoru horietarako egokia den argizaria emango da.



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Makina xurgatzaileak erabiliko dira alfonbrei, moketei, tapizei eta askotariko elementuei hautsa kentzeko. Era berean, orbanak sortzen badira, orban-kentzeko espezifikoekin garbituko dira, alfonbraren edo moketaren konposizioa kontuan hartuta. Urtean behin, gutxienez, ehunezko zoladuren garbiketa sakona egingo da shampomat metodoarekin edo injekzio-ateratze makinarekin.

**HORMEN ETA SABAIEN GARBIKETA.**

Hiru hilean behin, honakoak garbituko dira: barruko eta kanpoko hormak (3,5 metroko altuerara arte), sabaiak, erlaitzak, moldurak, berogailuaren hodiak eta antzeko elementuak. Horretarako, bitartekorik egokienak erabiliko dira. Udalaren iritziz hiru hilean behingo garbiketa hori beharrezkoa izanez gero, esleipendunari jakinaraziko dio gutxienez 10 egun naturaleko aurrerapenarekin.

Hormak honela bereiziko dira: garbitu daitezkeen hormak eta garbitu ezin direnak. Gaur egun, pintura gehienek aglutinatzaile sintetikoak erabiltzen dituzte eta, hortaz, ura erabil daiteke orbanak eta gainazal horietara itsatsitako beste zikinkeria batzuk garbitzeko.

Garbitu ezin diren hormetan ez da zapi bustirik erabiliko; mopa lehorra eta hautsa kentzeko produktuak bakarrik baimenduko dira.

Sabaiak, erlaitzak, moldurak, kasetoidurak... garbitzeko, ile leuneko eskuila xurgatzaile garbiak erabiliko dira. Eskaiolazko sabai zulatuetan edo soinua xurgatzen duten plaketan likido haustua jaurtitzeko sistema erabiliko da, eta gero profilak garbituko dira.

**URREZTATUEN ETA METALEN GARBIKETA.**

Dagokion metalarentzat egokia den produktu batekin garbituko dira.

Urreztatuak eta metalak, gutxienez, kristalentzat adierazitako maiztasunarekin garbituko dira. Horretarako, erdoiltzea saihesten duen produktu babesgarri bat aplikatuko da, eta ez da erabiliko haien kualitateak aldatu ditzakeen produktu azidorik.



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

**KRISTALEN, GORTINEN ETA PERTSIANEN GARBIKETA.**

Detergente neutroekin edo kristalak garbitzeko produktuekin garbituko dira kristalak. Gainazal horien ohiko mantentzerako, behar diren kristalak garbitzeko tresnak erabiliko dira (gomazko ezpainak, hedagarriak, eskailerak...).

Beirate beruneztatuak, paramentu bertikaletan zein paramentu horizontaletan kokatuta daudenak, alde batetik edo bi aldeetatik garbituko dira haien babesen arabera, eta kontu handiz garbituko dira, hautsi ez daitezen. Kasu batzuetan aparteko bitartekoak erabili behar direnez (aldamioak...), urtean behin bakarrik garbituko dira.

Iristeko moduan dauden pertsianei hautsa kenduko zaie aldian behin. Administrazioak hala erabakitzen duenean, pertsianak detergente neutro batekin garbituko dira, eta presio-makinak edo lurrun-makinak erabili ahal izango dira, kasuaren arabera. Garbiketa horren kostua aparteko aurrekontu batean sartu behar da.

Eskainitako prezioaren barruan sartzen da gortinak garbitzea, dagokion eraikinaren fitxan (II. eranskina) adierazitako maiztasunarekin.

Gortinak jaitsi, garbitu eta berriz zintzilikatu beharko dira. Kontzeptu honen barruan sartzen da erabileragatik, muntatzeagatik edo desmuntatzeagatik askatuta dauden eraztunak jostea, baita gortinek izan ditzaketen zulo txikiak edo tarratadak jostea ere.

**ESKUDELEN ETA BARANDEN GARBIKETA.**

Trapu leun batekin garbitu behar dira eskaileretako edo kareletako eskudelak eta barandak.

**ALTZARIEN ETA EKIPO INFORMATIKOEN GARBIKETA.**

Altzari guztiak eta horien osagarriak kontu handiz tratatu eta zaindu behar dira, makinekin eta garbitzeko produktuekin orbanak, kolpeak eta urratuak eragitea saihestuz.



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Pororik gabeko egurrezko gainazalak (lakatutako edo plastifikatutako gainazalak) garbitzeko zapi bat erabiliko da, detergente anionikoaren diluzio baxuarekin eta urarekin. Ondoren, argizari likidozko edozein produktu, argizari naturalarekin edo argizari begetalarekin prestatua, edo hidrokarburo batetik eratorria. Egurrezko gainazal porotsuen kasuan, aurrez hautsa kendu behar da zapi heze (ia lehorra) batekin. Ondoren, argizariz egindako prestakin bat.

Gainazal sintetikoetarako ez da produktu koipetsurik edo argizaria duen produkturik erabiliko (adibidez, esprai konbentzionalak), detergente suabeak baizik. Egunero garbituko dira, kontuz, gamuza batekin. Eta, lekuz aldatuz gero, kolpeak eta kalteak saihestuko dira.

Altzari-elementu modularrak kontu handiz eramango dira leku batetik bestera, eta Esleipenduna izango da arrazoi horrengatik sortzen diren kalteen erantzulea. Hileko egiaztagirietatik deskontatuko da arrazoi horrengatik sortutako kalteen zenbatekoa.

Hormak edo zoruak garbitzeko altzari modularrak (apalategiak, armairuak, liburutegiak...) mugitu behar izanez gero, altzariak lekuz aldatzeko erabili beharreko bitartekoak zehaztuko dira kasu zehatz bakoitzean, administrazioarentzat inolako kosturik gabe.

Ekipo informatikoen kanpoaldea urez eta detergente anionikoz (disoluzio baxuan) apur bat bustitako zapi batekin garbituko da. Zapitik ezin da likido tantan bakar bat ere erori, inola ere.

Monitoreak eta horien filtroak uretan (% 75eko proportzioan) diluitutako alkoholarekin garbituko dira, aldian behin.

**ARGI PUNTUEN GARBIKETA.**

Ikastetxeetan, oporraldietan garbituko dira argi-puntuak (bonbillak, lanparak).

Gainerako eraikinetan, II. eranskinean zehaztutako maiztasunez garbituko dira. Elementu egokiak erabilita (mustuka, zapia...), hautsa kendu beharko da lanparetatik,



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

fluoreszenteetatik, bonbilletatik, ispilu-pantailetatik eta abarretatik, aparatu bakar bat ere desmuntatu gabe.

Pantailak, lanparak... sakon garbitu behar direnean, udal-brigadako langileek desmuntatu eta lurrean edo lan-mahaiaren gainean jarriko dituzte. Garbitu ondoren, langile horiek muntatuko dituzte berriz ere. Udal-zerbitzuek zuzenduko dute bi kontraten koordinazioa.

**BAINUGELEN, DUTXEN, KOMUNEN ETA KOMUN ONTZIEN GARBIKETA.**

Arreta berezia eskainiko zaio bainugelen (dutxak eta bainuontziak), komun-ontzien, konketen, zaborrontzien, aldatzaileen, pixontzien, haurren bainuontzien... garbiketari. Kontuz garbituko dira, jatorri mineraleko zikinkeria kentzeko egokiak diren produktuak erabilita.

Lan horiek egiteko egokienak iruditzen zaizkion garbiketa-produktuak zein diren adierazi behar du enpresa lizitatzaileak.

Komun-ontziak garbitzeko desinkrustatzaile likidoak erabili daitezke, ukondoetako eta bazterretako edozein zikinkeria-hondar kentzeko. Barrutik eta kanpotik garbituko dira, eta hipoklorito sodikoarekin desinfektatuko dira. Bainugeletako gainerako osagarriak (ispiluak, heldulekuak, kanilak...) detergente neutroekin garbituko dira eta behar bezala lehortuko dira trapu oso lehor batekin.

Lixiba eta beste desinfektatzaileak kontzentrazio egokietan eta adierazitako kontzentrazioetan erabiliko dira, neurri dosifikatzaileak erabilita.

Gainera, komun eta bainugela bakoitzean beharrezko material suntsikorrak egotea zainduko da: komuneko papera, xaboia, paperezko zapiak...

Orokorrean, detergente neutroak edo apur bat alkalinoak erabiliko dira, karea sortzea saihesten dutenak eta kontserbatzeko balio dutenak. Eta gainazal esmaltatuak urratzen ez dituzten zapiak erabiliko dira. Urratzen ez duten desinfektatzaile garbigarriak aplikatuko dira, errematatzeko eta usaina kentzeko ahalmena dutenak;



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

hau da, usainak estali ordez horiek kentzera bideratuta daudenak, usainak sortzen dituzten germenak kentzearen bidez.

**IKASTETXEEN GARBIKETA (HAURRESKOLA ETA ESKOLA)**

Arreta berezia eskainiko zaio ikasgelen garbiketari, eta aintzat hartuko da erabiltzen diren garbiketa-produktuak ez kaltegarriak izatea, ez pertsonentzat, ez ingurumenarentzat.

Ikasgelak garbitzean, egunero koltxonetak altxatu behar dira, eta horiek zein horien azpialdeak garbitu behar dira.

Mahaiak egunero garbitu behar dira alde guztietatik, ertzak barne.

Udako oporren ondoren garbiketa orokorra egingo da, ikasturte berria hasi aurretik. Garbiketa orokorrak barne hartuko du gortinen, estoreen, pertsianen... garbiketa.

**OFFICEAREN GARBIKETA**

Officea duten eraikinetan, adibidez, udaletxean, etxetresna elektrikoak ere garbitu beharko dira, hala nola mikrouhin-labea (astean behin) eta hozkailua (hiru hiletik behin).

**KULTUR ETXEAREN GARBIKETA**

Kultur Etxearen ohiko garbiketa-zerbitzuak 2 lanegun ezberdinetan egin behar dira, irekitze-orduari egokituta. Hau da, goizean ireki aurretik eta arratsaldean ireki aurretik garbitu behar da.

**KRISTALAK ETA AZULEJOAK:**

Finkatutako gutxieneko maiztasunarekin garbituko dira, eta beharrezko neurriak hartuko dira garbiketa-prozesua segurtasun- eta higiene-baldintza ezin hobeetan egin ahal izateko. Kristal bat garbitzat hartuko da kristalaren bi aldeak garbitu ondoren, eta ezingo da arrazoitu iristeko zailtasunik.



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

**HONDAKIN SOLIDOAK**

Eraikinen garbiketatik sortutako hondakin solidoak plastikozko poltsetan bota behar dira Udalak zehaztutako lekuetan, zaborra biltzeko eta deuseztatzeko udal-zerbitzuek jaso ditzaten.

**PAPER EDUKIONTZIAK ETA PAPERONTZIAK**

Hustu egin behar dira eta kaleko birziklatze-edukiontzietara bota behar da horietako edukia, hondakinak biltzeko eta birziklatzeko udal-zerbitzuek jaso dezaten (ontziak, papera eta kartoia, organikoa, beira eta errefusa).

**ATERKI ONTZIAK**

Aterkiei zorroak jartzeko dauden gailu automatikoetako zorroak birjarri behar ditu esleipendunak.

Halaber, zerbitzu honen xede diren zentro guztiak desinfektatzeaz eta horietako intsektuak eta arratoiak hiltzeaz arduratuko da esleipenduna, eta dagokion ziurtagiria igorriko du urtero.

**3.4 OHIKO ZERBITZUETAKO LANEN MAIZTASUNA**

Garbiketa-zerbitzuaren baitako lanak honela sailkatuko dira, horiek egin beharreko periodikotasunaren arabera:

3.4.1. **Egunero** egin beharreko lanak:

- Bulegoko ekipoei hautsa kentzea.
- Eskailerak garbitzea.
- Zoruak garbitzea edo ekorketa hezea.
- Barandak garbitzea.
- Zoruak urez garbitzea.
- Gimnasioak garbitzea (ekorketa, zoruak urez garbitzea).



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

- Bainugelak sakon garbitzea (aldagelak, WC, konketak, dutxak, aldatzaileak, pixontziak eta haurren bainuontziak...).
- Altzariak, ateak eta ekipo informatikoak garbitzea (hautsa, errotuluak, orbanak...).
- Paperontziak hustea.
- Eta abar.

3.4.2. **Astero** egin beharreko lanak:

- Barruko metalak garbitzea (heldulekuak, urreztatuak...).
- Altzariak eta etxetresna elektrikoak sakon garbitzea (mahaiak, armairuak, aulkiak, mikrouhin-labea...).
- Erradiadoreetako hautsa garbitzea.
- Telefonoak eta ekipo informatikoak garbitzea.
- Argiaren pultsadoreak garbitzea.
- Psikomotrizitate-gelako eta gimnasia-gelako materiala garbitzea (koltxonetak, goma-aparrezko blokeak, piezak eta antzekoak).
- Sehaskak eta oheak garbitzea.
- Harmailak garbitzea (probaleku...).
- Probalekuko arbitroen aldagelak, harmailak eta korridorea garbitzea.
- Eta abar.

3.4.3. **Hilero** egin beharreko lanak:

- Ateen eta eremuak banatzeko itxituren orriak eta markoak garbitzea.
- Lanparak eta argiztapen-ekipoak (pantailak, hodi fluoreszenteak, luminaria goriak...) garbitzea.
- Landareak eta dekorazio-elementuak garbitzea (eskulturak, koadroak...).
- Eta abar.

3.4.4. **Hiru hiletik behin** egin beharreko lanak:

- Armiarma-sareak garbitzea eta xurgatzea.
- Hozkailua garbitzea. (Office)

3.4.5. **Sei hiletik behin** egin beharreko lanak:



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

- Barruko eta kanpoko arotzeria metalikoa (altzairuzkoa eta aluminiozkoa) garbitzea, baita eraikinaren kanpoaldeko burdinazko elementuak ere (eskudelak, barandak...).

3.4.6. **Urtean behin** egin beharreko lanak:

- Zoruei distira ematea (Kultur Etxean desugertzea eta argizaria ematea).
- Egur naturalezko altzariak garbitzea eta argizaria ematea.
- Gortinak eta/edo pertsianak garbitzea.

3.4.7. **Maiztasun aldakorrarekin** egin beharreko lanak:

- Higiene- eta garbitasun-produktuak hornitzea eta birjartzea, beharrezkoa den heinean (gutxienez, egunero).

## 4. EGIN BEHARREKO LANAK ETA MAIZTASUNAK

Baldintzen Plegu honetan udal-eraikin bakoitzerako aurreikusten diren irismena eta lan egiteko aldiak zehazten ditu jarraian agertzen den koadroak.

| ZENTROEN ZERRENDA | ZERBITZUA | LANAK EGITEKO ALDIA |
|---|---|---|
| Udaletxea | Ohiko zerbitzua | Astelehenetik ostiralera, jaiegunik gabe |
| | Kristalak garbitzea | 6 aldiz/urtean |
| | Gortinak eta/edo estoreak garbitzea | 1 aldiz/urtean |
| Elortza Eskola Publikoa | Ohiko zerbitzua | Astelehenetik ostiralera, jaiegunik gabe |
| | Kristalak garbitzea | 6 aldiz/urtean |
| | Pertsianak garbitzea | 1 aldiz/urtean |
| Haurreskola | Ohiko zerbitzua | Astelehenetik ostiralera, jaiegunik gabe |



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

| | | |
|---|---|---|
| Kultur Etxea | Kristalak garbitzea | 12 aldiz/urtean |
| | Gortinak eta/edo estoreak garbitzea | 1 aldiz/urtean |
| | Ohiko zerbitzua | Astelehenetik larunbatera, jaiegunik gabe, bi txandatan garbitu behar dela kontuan hartuta: goizean ireki aurretik eta arratsaldean ireki aurretik. |
| Futbol-zelaia | Kristalak garbitzea | 6 aldiz/urtean |
| | Gortinak eta/edo estoreak garbitzea | 1 aldiz/urtean |
| | Ohiko zerbitzua | Astelehenetik igandera, jaiegunik gabe |
| | Kristalak garbitzea | 4 aldiz/urtean |
| Udal-brigadaren pabiloia | Ohiko zerbitzua | 1 egun/astean, jaiegunik gabe |
| | Kristalak garbitzea | 4 aldiz/urtean |
| Probaleku kiroldegia | Ohiko zerbitzua | Astelehenetik larunbatera, jaiegunik gabe.<br>Eraikin honetan obra batzuk egin behar dituzte eta, bitartean, ez da garbitu beharko. Lan egin gabeko ordu horiek aparteko orduen poltsara pasatuko dira. Hala, obra horiek irauten duten bitartean Udalak aparteko ordu batzuk izango ditu eskura, kosturik gabekoak. |
| | Kristalak garbitzea | 4 aldiz/urtean |
| Gazteleku | Kristalak garbitzea | 4 aldiz/urtean |
| | Pertsianak, gortinak eta/edo estoreak garbitzea | 1 aldiz/urtean |
| Nagusien etxea | Kristalak garbitzea | 4 aldiz/urtean |
| | Gortinak eta/edo estoreak garbitzea | 1 aldiz/urtean |
| Torrebarri eraikina (Inola) | Kristalak garbitzea | 4 aldiz/urtean |



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

| | | |
|---|---|---|
| | Gortinak eta/edo estoreak garbitzea | 1 aldiz/urtean |
| Kiroldegia | Kristalak garbitzea | 1 aldiz/urtean |

**5. ZERBITZUA EMATEKO LANGILEAK**

Zentro bakoitzean proposatutako metodo operatiboak eta maiztasun-koadroak aplikatzeko zenbat langile jarriko dituen zehaztuko du lehiakideak. Era berean, dauden lanpostuak zehaztu beharko ditu.

Enpresa esleipendunak gaur egun zeregin horietan lanean dauden langile guztiak subrogatzeko betebeharra du, lan-baldintza berdinetan, indarrean dagoen Bizkaiko Lokalen eta Eraikinen Hitzarmenak markatzen duen moduan. II. eranskinean atxikita dago subrogatu beharreko langileen zerrenda.

Kontratu honen xede den zerbitzua ematen duten langile guztiak enpresa esleipendunaren mendekoak bakarrik izango dira, eta ez da inolako harreman juridiko administratiborik edo laboralik egongo langileen eta Udalaren artean, ez kontratua indarrean dagoen bitartean, ez aurrerago.

Langile guztiak behar bezala aseguratuta egongo dira Gizarte Segurantzan, enpresa esleipendunaren kontura.

Zerbitzu horiek ematen dituzten langile operatibo guztiek identifikatzeko moduan egon behar dute. Hori dela eta, langileei uniformea jartzeko betebeharra du kontratistak, haren kontura, zerbitzua ematen ari diren orduetan zehar.

Esleipendunaren erantzukizunekoak izango dira langileen garbitasunik eza, begirune-falta, janzteko uniformetasun-falta eta instalazioekiko eta publiko orokorrarekiko deskortesia edo tratu txarra.

Zerbitzua ematera bideratutako giza baliabideak aldi baterako murriztuz gero, gaixotasunen, enpresaren zigorren edo langileen bajen ondorioz, edo antzeko beste arrazoi batzuen ondorioz, plaza horiek betetzeko konpromisoa hartzen du



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

lehiakideak, zerbitzura bideratutako kide kopurua berdin mantendu dadin.

**6.GARBITZEKO MAKINAK, MATERIALAK ETA TRESNAK (LAN IRIZPIDEAK).**

Kontratistaren konturakoak eta kargurakoak izango dira erabili beharreko material eta tresna guztiak, erabileragatik kontsumigarriak izan zein ez, horien kontserbazioa barne. Nolanahi ere, Udal honetako zerbitzu teknikoek onartutako eta zentro bakoitzaren ezaugarri fisikoei egokitutako garbiketa-produktuak erabili beharko ditu kontratistak uneoro, horien erabilerak kalterik eragin ez dezan. Era berean, higiene-materiala (komuneko papera, xaboia...) birjarri beharko du, beharrezkoa denean.

Gutxienez, honako makineria hau erabiltzeko eskatuko zaio enpresa esleipendunari:

• Garbitzailea
• Hauts-ur xurgagailua
• Birakaria
• Haize-makina
• 4 Eskailerak
• Etab.

Kontratua amaitutakoan, enpresa esleipendunak Urdulizko Udalaren esku jarriko ditu kontratu honetan sinatutako nahitaezko makinak eta ibilgailuak, eta, une horretan, Urdulizko Udalaren jabetzakoa izango da.

Udalaren kontura izango dira lanak egiteko beharrezkoak diren ur-hornidura, argiztapena eta argindarra.

Garbitasun-egoera ezin hobean mantendu behar dira eraikinetako gela guztiak, honako alderdiei arreta berezia jarrita:

- Zoladurak: era guztietako zoladurak eta estaldurak. Horietako bakoitza produkturik egokienarekin garbitu behar da (zoladuren kasuan, produktuak autodistiratsuak eta irristagaitzak izango dira).
- Ateak eta hormak: Marratzen ez duten produktuak; ez da lixibarik erabiliko.
- Bainugela: garbiketa sakona egingo da, eta urez garbituko dira zoruak eta hormak; komun-ontzietarako, urre koloreko desinfektatzaile bereziak



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

erabiliko dira.

- Igogailuak: ez da hezetasunik aplikatuko adierazgailu digitaletan eta botoietan.
- Altzariak: erabilitako prozedurek ez dute marrarik edo urraturik sortu behar; bulegoetako, eremu irekietako, atarietako... paperontziak hustu eta garbituko dira; libururik, paperik eta antzekorik ez duten mahaietan eta erakusmahaietan jatorrizko tonua eta distira mantentzen duten garbiketa-produktuak erabiliko dira, babes-elementuak dituztenak (inolako kasutan ere ez da erabiliko lixibarik).
- Ateen heldulekuak: metalak garbitzeko amoniakorik gabeko produktu motaren batekin garbituko dira.
- Gortinak: ikuzi egingo dira.
- Zoruei distira ematea: produktu irristagaitzak erabiliko dira, etengabe itxura atsegina mantenduko dutenak; lan hori eskola-orduetatik kanpo egingo da.
- Enpresa esleipendunak jarriko ditu Plegu honen xede diren zerbitzuak emateko beharrezkoak diren ekipo eta produktu guztiak. Produktu horiek neutroak, hezegarriak eta sakabanatzaileak izango dira.
- Garbiketatik ateratako hondakinak poltsa itxietan erretiratu behar dira, berehala, eta handik hurbil dauden edukiontzietara bota behar dira.
- Birziklatzeko papera horretarako jarritako lekuan utzi behar da.

Orokorrean, **debekatuta dago honakoen erabilera**:

- Aire-gozagarriak.
- Pixalekuetarako pastilla edo substantzia lurrindunak.
- Esprai motako produktuak.
- Garbiketa orokorrerako desinfektatzaileak edo desinfektatzaileak dituzten produktuak (adibidez, lixiba), bainugeletan izan ezik.

Gainera, garbiketarako produktuen ontzi guztiak modu egokian etiketatuta egongo dira eta dosifikazio-aparatu zehatzak izango dituzte.

**Normalean erabiltzen diren 4 garbiketa-produktuek** (hau da, erabilera askoko garbigarria, zoru garbigarria, kristal garbigarria eta gainazal zeramikoen garbigarria) I motako ekoetiketaren baten baldintzak beteko dituzte; esaterako, Europar Batasuneko



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Etiketa Ekologikoarenak, Zisne Nordikoarenak edo baliokideren batenak, produktuaren formulazioan konposatu kimikoak egoteari dagokionez.

Honako hauek baloratuko dira:
- Garbiketa-produktuen aniztasun txikia.
- Garbiketa-produktuek ingurumena errespetatzea. Horretarako, produktuek edo horien osagaiek ez dituzte honako arrisku-esaldiak izan behar, Europako 67/548/CEE eta 1999/45/CE zuzentarauen eta horien moldaketen (Estatuko zuzenbidera iraulita daude, 255/2003 Errege Dekretuaren bidez) arabera: R31, R40, R42, R43, R45, R46, R49, R68, R50-53, R51-53, R59, R60, R61, R62, R63 eta R64.

Zerbitzuan zehar erabiliko dituen produktuen zerrenda aurkeztu beharko du lizitatzaileak, III. eranskinaren arabera. Eta segurtasun-fitxa ere aurkeztu beharko du, 255/2003 Errege dekretuaren eta ondorengo zuzenketen arabera.

Eskaintzan aurkeztu gabeko beste produktu bat erabili behar izanez gero, dokumentazio guztia aurkeztu behar da, erabili aurretik onartzeko.

**Kontsumigarriei, komuneko paperari eta eskuak lehortzeko paperari** dagokienez, % 100 birziklagarriak izan behar dute eta ez dute batere klororik izan behar (Totally Chlorine Free, TCF).

Produktuaren formulazioan konposatu kimikoak agertzeari dagokionez, I motako ekoetiketaren baten irizpideak betetzea baloratuko da; esaterako, Aingeru Urdinarenak, Zisne Nordikoarenak, Europako Etiketa Ekologikoarenak edo baliokideren batenak.

Lagin bat aurkeztu beharko da produktuak ukipen atsegina duela bermatzeko eta haren erresistentzia-propietate teknikoak bermatzeko.

Eskainitako **eskuetarako xaboiak** ez du izan behar koloratzailerik, lurrinik eta agente desinfektatzailerik.

Produktuaren formulazioan konposatu kimikoak agertzeari dagokionez, eskainitako eskuetarako xaboiak I motako ekoetiketaren baten irizpideak betetzea baloratuko da;



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

esaterako, Europako Etiketa Ekologikoarenak, Zisne Nordikoarenak edo baliokideren batenak.

**Zabor-poltsak** plastiko halogenatuz eginak ez izatea baloratuko da; hau da, polietilenozkoak edo polipropilenozkoak izan behar dute, eta poltsaren % 80k, gutxienez, plastiko birziklatuz egina izan behar du.

Produktuaren formulazioan konposatu kimikoak agertzeari dagokionez, I motako ekoetiketaren baten irizpideak betetzea baloratuko da.

**Garbitzeko trapuek eta mopek/lanbasek** mikrofibrazkoak izan behar dute, hondakinen sorrera, uraren kontsumoa eta beste produktu kimiko batzuen kontsumoa murrizteko.

Eskuak lehortzeko ekipoak, komuneko paperaren euskarriak eta xaboi-banagailuak ordezkatzea, kontsumigarrien eta/edo energiaren kontsumo baxuagoa ahalbidetzeko [kostu gehigarria izatea onartuko den ala ez erabaki behar da, ohiko pleguaren arabera].

Derrigorrezko eta baloratzeko ingurumen-irizpideen informazioa III. eranskinean aurkeztu behar da, kasu bakoitzean aurkeztu beharreko ziurtagiriekin batera.

Enpresa esleipendunak kontsumigarriei dagozkien albaran eta faktura guztiak aurkeztu beharko ditu gastu hori justifikatzeko.

**7 LAN METODOLOGIA.**

**7.1.** Urdulizko Udalak, aurrez kontratistari jakinarazita, egokitzat jotzen dituen aldaketa guztiak txertatu ditzake zerbitzua emateko ezarritako metodologian; nolanahi ere, prestazioaren balorazio ekonomikoa mantendu beharko du.

**7.2.** Zerbitzua ematen hasi aurretik, kontratatutako pertsona guztien TCak eta kontratuak aurkeztu behar dira, baita bakoitzari esleitutako zereginak ere. Udalak onartu egin beharko ditu horiek.

**7.3.** Udal-eraikin bakoitzean lan-parteen edo egindako lanen erregistro batek



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

egon behar du, lan horiek egin dituen pertsonak sinatuta. Lan-parte hori ikusgai egongo da eta honakoak jasoko ditu, gutxienez: lanak egindako eguna, lanak egin dituenaren NAN zenbakia eta haren sinadura.

**7.4.** Instalazioen mantentzeari dagokionez, Udalak eta esleipendunak dituzten eskumenak interpretatu ahal izango ditu Udalak.

**7.5.** Zerbitzua amaitu ondoren, materialak, tresnak... jaso beharko ditu kontratistak.

**7.6.** Garbiketa-lanek gela bakoitzeko gainazal guztiak hartzen dituzte barne: altzariak, ekipamendu finkoak, dekorazio-elementuak, edozein motatako paramentu bertikalak, sabaiak, aireztatze-saretak, pertsianak, leihoak, leihoen eta balkoiko ateen leiho-ertzak, ateak, barruko eta kanpoko kristalezko ispiluak, sarrerako eskailerak...

**7.7.** Adierazitako lokal eta eraikinetako gela guztiak ezin hobeto garbitzeko eta kontserbatzeko beharrezkoak diren lanak eta eragiketak ongi egitea izango da garbiketa-zerbitzu honen helburua, gela horiek segurtasun-, osasun- eta higiene-baldintza perfektuak izan ditzaten.

**7.8.** Kontratu honi zereginak edo jarduketa-unitateak gehitu edo kenduz gero, edo eskainitako programa aldatuz gero, kontratua handituko edo txikituko da, betiere kontratura bideratutako giza elementuak edo elementu mekanikoak aldatzen badira, edo ustiapenaren kostuak handitzen badira, eta betiere plegu honetan jasotako muga aintzat hartuta.

**7.9.** Prestakuntza: Langileek prestakuntza jaso behar dute egin behar dituzten lanen gainean, eta modu arduratsuan egiten ikasi behar dute, haien osasuna eta ingurumena errespetatze aldera (produktuen dosifikazio eta diluzio egokia, uraren zentzuzko erabilera, argiak itzaltzea...). Esleipena egin eta lehenengo 2 asteen barruan aurkeztu beharko du esleipendunak prestakuntza-plana, XX hilabeteko epean [zehazteko dago, kontratuaren iraupenaren arabera] langile guztiek prestakuntza egokia jaso dezaten kontratua gauzatzeko.



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

**7.10.** Hondakinen kudeaketa: Esparruan sortutako hondakinei dagokienez, lehendik dagoen gaikako bilketa mantenduko du esleipendunak, eta dagozkien edukiontzietara botako ditu hondakinak.

**7.11.** Zerbitzuan sortutako hondakinei dagokienez (papera, trapuak, kartoia, produktuen ontziak...), kontratuan zehar sortutako hondakinak esleipendunak kudeatuko ditu, eta horien kudeaketa egokia bermatuko du. Esleipendunak hiriko edukiontzietan bereiziko ditu sortutako hiri-hondakinak. Aldiz, hondakin arriskutsuak diren kasuetan, baimendun kudeatzaile baten bidez kudeatuko ditu (funtsean, arriskutsu gisa sailkatutako garbiketa-produktuen ontziak).

**7.12.** Kontratuaren hasieran, hondakin arriskutsuak zer baimendun kudeatzaileri emango dizkion aurkeztu beharko du esleipendunak.

**7.13.** Ontzien etiketak: Ontzi guztiek, kontzentratuek zein diluituta daudenek, etiketa egokia izan beharko dute. Honakoa adierazi behar du etiketak:

- Produktuaren izen komertziala.
- Produktuaren arriskugarritasun-piktogramak.
- Erabilera-argibideak; batez ere, dosifikazioari dagozkion argibideak.

**7.14.** Beste produktu bat erabiltzea: Eskaintzan aurkeztu gabeko beste produktu bat erabili behar izanez gero, dokumentazio guztia aurkeztu behar da, erabili aurretik onartzeko.

**7.15.** Lanerako argibideak: Esleipendunak lanerako argibideak prestatu behar ditu kontratuaren lehenengo hilabetean, ingurumenari, laneko osasunari eta produktuen segurtasunari buruzko informazioarekin. Horiek eskuragarri egon behar lukete eraikinean.

**7.16.** Gordetzea: Enpresa esleipendunak legediak markatzen duen moduan gorde beharko ditu garbiketa-produktuak.



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

**7.17.** Ingurumen-jarraipena: Eskaintzan adierazitako produktuak (ingurumenarekiko onenak direnak) erosi izana frogatzen duten fakturak aurkeztu beharko ditu enpresa esleipendunak sei hilean behin edo urtean behin.

**8. KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK**

a) Plegu honetan deskribatzen diren eta kontratuaren xede diren lanak langile egokien bidez gauzatuko ditu enpresak, lanak hitzartutako denboran eta hitzartutako kalitatearekin egiteko, modu normal eta egokian.
b) Enpresak jarri beharreko instalazioak eta materialak:
Zerbitzua ematen hastean, kontratuaren xede diren lanak egiteko behar diren materialak izan behar ditu enpresak. Eta langileek zerbitzua emateko behar diren jantziak izan behar dituzte, langile bakoitzaren beharrak kontuan hartuta. Aipatutako material eta jantzi guztiak birjartzea enpresaren kontura izango da.
c) Indarrean dagoen legediak aurreikusitako segurtasun eta higiene arloko arauak beteko ditu enpresak lanean, eta horiek betearaziko dizkie langile guztiei.
d) Enpresako langileak haren mende eta haren zuzendaritzapean mantenduko dira uneoro, eta enpresaren lan-erregimenari lotuta egongo dira, Udaleko langileekiko eta erregimenarekiko modu independentean, erabat.
e) Enpresako langileek eta enpresak berak ez dute onartuko iradokizunik edo kexarik, Udalak izendatutako arduradunaren bidez jasoak ez badira. Horretarako, esleipendunak Udalari jakinaraziko dio zerbitzua ematean sortutako edozein arazo, idatziz, haren ordezkariaren bidez.
f) Enpresako langileren batek (Udalak esleitutako zerbitzuarekin lotuta dagoena) alta edo baja hartuz gero, hurrengo astean horren berri eman behar du enpresak, idatziz. Eta Gizarte Segurantzari egindako kotizazioa justifikatuko du, hiru hilean behin TC2 dokumentua aurkeztuta, kotizazio-oinarri guztiekin eta langileen zerrenda nominalarekin.
g) Enpresak haren plantillako pertsona bat izendatuko du kontratu honen xede diren zerbitzuen buru eta arduradun gisa. Enpresak jarritako langile guztiak haren mende egongo dira hierarkikoki, eta laneko segurtasunari eta higieneari buruzko arauak bete beharko ditu, haren mendeko langileei betearazteaz gain.
h) Halaber, zerbitzua ematean arazo teknikoak, laboralak, segurtasun-arazoak edo beste nolabaiteko arazoak sortzen badira, enpresak hartutako konpromisoari edo



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

langileei eragiten dietenak, edo Udalaren, beste erakunde edo agintari ofizial batzuen edo Laneko Ikuskaritzaren jarraibideen ondorioz gertatzen direnak, aipatutako buru edo arduradun horren bidez jakinarazi behar dira eta haren bidez saiatu behar dira konpontzen, eta ez beste inola.

i) Enpresari emandako zehaztapen teknikoen eta/edo aginduen arabera edo enpresak berak prestatu eta Udaleko arduradunek onartutako zehaztapenen arabera gauzatu behar dira etorkizuneko kontratuaren xede diren lanak.

j) Baja, opor eta abarren ondorioz langileak falta badira, ordezkatu egin behar dira beste langile batzuk gehituta, gainerako langileen ordutegiak aldatu gabe.

k) Planoak, materialen zerrendak, erabiltzaileak, aparatuen deskribapena eta, orokorrean, Udalak emandako informazioa hirugarrenekin ez partekatzeko konpromisoa hartzen du enpresak. Eta, era berean, informazio hori kontratatutako zerbitzua gauzatzeko bakarrik erabiltzeko konpromisoa hartzen du. Udalaren berariazko baimenarekin bakarrik eman daiteke informazio hori.

l) Lanen etengabeko kontrola eramateko eta ezarritako era guztietako zehaztapenenak betetzen direla kontrolatzeko helburuz, Udalak uneoro gainbegiratu dezake lana. Horretarako, egindako lanak jasotzen dituen txantiloi bat bete beharko du enpresak; bertan, data, ordua eta lana egin duen langilearen sinadura jaso behar dira.

m) Eskaintzan finkatutako prezioak ez dira aldatuko kontratuak irauten duen artean, aurreko atalean aurreikusitakoaren arabera eta Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguan ezarritakoaren arabera.

n) KONTRATUEN JARRAIPENERAKO APLIKAZIOA: Hornitzailea behartuta dago kontratu honetatik eratorritako konpromisoen eta zereginen betetze maila Urdulizko Udalak haren eskura jarritako plataforma digitalean erregistratzera.

ñ) Zerbitzu guztien eta aldaketa posibleen dimentsionamendua eta antolaketa urtero aztertuko dira, zeregin bakoitzean erabilitako denboraren arabera zerbitzuak dauden beharretara egokitzeko. Horretarako, hobekuntza-plan bat aurkeztuko da, Udalak onartu beharrekoa. Zerbitzuaren dimentsionamendu horren ondorioz, eraikin bakoitzaren garbiketa berriro egokitu beharko da eta, hala dagokionean, beste zerbitzu osagarri batzuk eginez konpentsatuko da, edo ordu horiek beste eraikin batzuk garbitzeko erabiliko dira.

**9. KONTRATISTAREN BITARTEKO TEKNIKOAK**



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

Zerbitzua modu egokian emateko behar besteko bitarteko teknikoak izan beharko ditu kontratistak.

Langile guztiek beharrezko materiala eta jantzi aproposak izan beharko dituzte uneoro, zerbitzuaren kontratistaren kontura.

**10. ESKAINTZA TEKNIKOAREN EDUKIA:**

Lizitatzaileak honako dokumentazioa aurkeztu behar du, jarraian zehazten den moduan:

a) Zereginen eta zerbitzuaren **memoria deskriptiboa.**

Plegu teknikoan zehar aipatutako irizpide guztiak jasotzen dituen memoria bat aurkeztu behar dute enpresa lizitatzaileek. Laburtuz, eta orientazio gisa, enpresa lizitatzaileek aurkeztutako memoriak, gutxienez, honako alderdiak jaso behar ditu:

1) A.- Lan-programa. 35 puntu.

Zerbitzuen, maiztasunen eta zeregin bakoitzaren denboraren kalkulua, eraikin bakoitzaren beharren arabera. Aurrez aipatutako garbiketa mota edo garbiketa-sistema bakoitzaren definizioan adierazitako egutegiak eta zerbitzuen maiztasunak bete behar dira.

Zerbitzuari atxikitako baliabide materialen eta giza baliabideen deskribapena. Plegu tekniko honetan jasotako zeregin guztiak egiteko adinakoak izan behar dute baliabideek. Enpresa lizitatzaileek zerbitzuaren dimentsionamendua azaldu beharko dute haien memorian, ordutegiak eta egutegia proposatuta. Enpresa esleipendunak proposatu beharko ditu zerbitzua gauzatzeko giza baliabideak, baliabide materialak eta garbiketa-sistemak, zerbitzu eraginkorra, jasangarria eta ingurunearekiko errespetutsua emateko helburuz. Proposatutako giza baliabideen egokitasuna eta hornidura baloratuko dira. Atal hau baloratzeko, zerbitzu bakoitzari esleitutako lanpostuak eta langileak zehaztu behar dira eskaintzan, nahitaez. Era berean, guztikoak (garbiketarekin



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

zein beste zereginekin lotuta) eta horien justifikazioa ere zehaztu behar dira. Halaber, zerbitzu bakoitzaren egun kopurua eta ordu eraginkorren kopurua eta guztizkoak zehaztu behar dira, nahitaez, dagozkien kalkuluen justifikazioekin.

2) Jazoerak komunikatzeko bitartekoak. 2,5 puntu.
Jazoerak berehala jakinarazteko, atxikitako langileak topatzeko eta jazoeren ebazpenaren berri emateko erabiliko diren komunikabideen deskribapena.

3) Ingurumen Produktuentzako berariazko baldintzen fitxa: Derrigorrezko eta baloratzeko ingurumen-irizpideen informazioa III. eranskinean aurkeztu behar da, kasu bakoitzean aurkeztu beharreko ziurtagiriekin batera. Dokumentu honen 17., 18. eta 19. orrialdeetan deskribatzen dira produktuak eta horien baldintzak.

Memoriak ezingo ditu A4 neurriko 20 orrialde baino gehiago izan, eranskinak, aurkibidea eta azala aparte utzita. 12 neurriko Arial letra tipoarekin idatzita egon behar du, lerroarte sinplearekin eta 2 zentimetroko marjinekin, goiburuarekin eta orri-oinarekin.

Eskaintza elektronikoa denez, aurpegi bakoitza orrialde bat izango da. Hau da, aurrealdea eta atzealdea 2 orrialde ezberdin izango dira.

Ez dugu aintzat hartuko luzera hori gainditzen duen edozein orri edo dokumentu.

Enpresa lizitatzaileak kontuan hartu behar du modu objektiboan ebaluatu beharreko irizpideei erreferentzia egiten dien dokumentazioa edo informazioa ezin dela proiektuan eta memoria teknikoetan txertatu; hori eginez gero, garrantziaren arabera, eskaintza kanpoan uztea edo memorian sartu duten informazioa B gutun-azalean ez baloratzea erabakiko da.

Hurrengo fasera pasatzeko (B gutun-azala irekitzea), memoriaren balorazioan 20 puntu edo gehiago lortu behar dira.

Esleipendunak aintzat hartu behar du Udalak aldaketa batzuk egin diezazkiokeela hark egindako proposamenari.



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

**ERANSKINAK:**

**I ERANSKINA. -** ERAIKINEN INBENTARIOA ETA EZAUGARRIAK

**II. ERANSKINA. -** LANGILEEN ZERRENDA

**III. ERANSKINA.-** ENPRESA LIZITATZAILEAK PROPOSATUTAKO PRODUKTUEN

NAIARA GAYA BAJO - 16071937C

Firmado digitalmente por NAIARA GAYA BAJO - 16071937C
Fecha: 2024.03.04 10:55:34 +01'00'



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

## I. ERANSKINA - ERAIKINEN INBENTARIOA ETA EZAUGARRIAK

| HIGIEZINAREN IZENA | EGOERA | ERAIKITAKO AZALERA | SOLAIRUAK |
|---|---|---|---|
| Udaletxea | Elortza Plaza 1 | 1.867 m2 | • Sotoa<br>• Behe-solairua<br>• Lehenengo solairua<br>• Bigarren solairua |
| Elortza Eskola Publikoa | Aita Gotzon kalea 8 | 1.784 m2 | • Behe-solairua<br>• Lehenengo solairua |
| Elortza Eskola Publikoaren eraikin berria | Aita Gotzon kalea 8 | 2.325 m2 | • Behe-solairua<br>• Lehenengo solairua |
| Haurreskola | Arteta 2 | | Solairu bakarra |
| Kultur Etxea | Aita Gotzon 16 bis | 1.860 m2 | • Erdisotoa<br>• Behe-solairua<br>• Lehenengo solairua |
| Futbol-zelaia | Iparralde 2 | 600 m2 | Harmailak<br>eta aldagelak |
| Udal-brigadaren pabiloia | Area 20 Labetxe | 844 m2 | • Behe-solairua<br>• Lehenengo solairua |
| Probaleku kiroldegia | Aita Gotzon kalea 9 | 2.690 m2 | • Harmailak, aldagelak, probaleku eremua eta frontoi eremua. |
| Gazteleku | Lehendakari Aguirre Plaza 0 | 615 m2 | • Erdisotoa<br>• Behe-solairua<br>• Lehenengo solairua |
| Nagusien etxea | Aita Gotzon 18 | 468 m2 | • Behe-solairua<br>• Lehenengo solairua<br>• Behe-solairua, teilatua |



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

| | | | |
|---|---|---|---|
| Torrebarri eraikina (Inola) | Torre barri bide 1 | 462 m2 | • Behe-solairua<br>• Lehenengo solairua<br>• Behe-solairua, teilatua |
| Iparralde kiroldegia | Iparralde kalea 2 | 6.000 m2 | • Sotoa<br>• Lehenengo solairua |



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

## II. ERANSKINA LANGILEEN ZERRENDA

**Listado de subrogación**

| | Contrato | Fecha antigüedad | Cat.Laboral | Fecha Nacimiento | Porcentaje de jornada | Coste bruto 2023 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 289 | 01/02/2010 | LIMPIADOR-A | 01/10/1961 | 77,14 | 16.062,90 |
| 2 | 501 | 01/02/2017 | LIMPIADOR-A | 24/06/1961 | 75,71 | 14.358,91 |
| 3 | 289 | 01/09/2021 | LIMPIADOR-A | 06/01/1969 | 57,14 | 10.610,00 |
| 4 | 200 | 05/10/2021 | LIMPIADOR-A | 07/11/1965 | 97,14 | 16.951,63 |
| 5 | 200 | 04/08/1997 | LIMPIADOR-A | 11/10/1964 | 80 | 18.181,64 |
| 6 | 200 | 21/07/2007 | LIMPIADOR-A | 25/06/1973 | 95,71 | 20.168,17 |
| 7 | 100 | 13/03/2023 | LIMPIADOR-A | 28/10/1968 | | 12.248,43 |
| 8 | 289 | 08/11/2022 | LIMPIADOR-A | 01/12/1962 | 68,57 | 10.398,27 |
| 9 | 289 | 01/01/2021 | LIMPIADOR-A | 01/01/1974 | 57,1 | 10.336,50 |
| 10 | 200 | 08/01/2009 | LIMPIADOR-A | 09/06/1975 | 81,43 | 16.748,45 |
| 11 | 289 | 01/10/2007 | LIMPIADOR-A | 01/07/1963 | 64,29 | 14.065,68 |
| 12 | 401 | 06/12/2014 | ENCARGADO EQUIPO | 07/11/1981 | 50 | 25.926,84 |
| 13 | 402 | 09/07/2020 | PEON ESPECIALIZADO | 09/02/1966 | 40 | 19.481,03 |

enviser
Ibáñez de Bilbao 3, 2º
48001 Bilbao (Bizkaia)

* Bizkaiko Eraikinen eta Lokalen Hitzarmena.



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

**III. ERANSKINA: ENPRESA LIZITATZAILEAK PROPOSATUTAKO PRODUKTUEN ZERRENDA**

**III.A. ERANSKINA: BALDINTZAK**

Markatu BAI gelaxka, derrigorrezko gutxieneko zehaztapen guztiak eta hitzemandako baloratzeko zehaztapenak betetzen direla baieztatzeko. Derrigorrezko irizpideak bete ezean edo horiek betetzen direla ziurtatzen duen bermea aurkeztu ezean, eskaintza ez da esleipen-prozesuaren hurrengo fasera pasatuko, automatikoki.

Baloratzeko irizpideen kasuan, irizpidea betetzen dela ziurtatzen duen bermea aurkeztu ezean, irizpide horri lotutako puntuazioa ezeztatuko da; eskaintzarik onena identifikatzeko balio du puntuazio horrek.

| **Enpresaren izena** | | |
|---|---|---|
| **DERRIGORREZKO IRIZPIDEAK** | **BAI** | **BERME MOTA / MEMORIAKO ORRIALDEA** |
| Produktuen zerrenda 3. eranskinean dago zehaztuta | | 3. eranskina |
| **Garbiketa-produktuak** | | |
| Debekatuta dago honakoak erabiltzea:<br>- Aire-gozagarriak.<br>- Pixalekuetarako pastilla edo substantzia lurrindunak.<br>- Gas propultsatzaileak dituzten lainoztagailuak.<br>- Garbiketa orokorrerako desinfektatzaileak edo desinfektatzaileak dituzten produktuak (adibidez, lixiba), bainugeletan izan ezik. | | 1,2 |
| Ontziak ongi etiketatuta egongo dira | | 1,5 |
| Ontziek dosifikazio-aparatu eta diluzio-aparatu zehatzak dituzte | | 2,5 |
| Normalean erabiltzen diren 4 garbiketa-produktuek I motako ekoetiketaren baten baldintzak betetzen dituzte | | 5,6,7,8 |
| **Komuneko papera** | | |



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

| | | |
|---|---|---|
| % 100 birziklatua | | 3,8 |
| **BALORATZEKO IRIZPIDEAK** | **BAI** | **BERME MOTA / MEMORIAKO ORRIALDEA** |
| **Komuneko papera** | | |
| I motako ekoetiketaren baten baldintzak betetzen ditu | | 6,7,8 |
| **Eskuak lehortzeko papera** | | |
| I motako ekoetiketaren baten baldintzak betetzen ditu | | 6,7,8 |
| **Eskuetarako xaboia** | | |
| I motako ekoetiketaren baten baldintzak betetzen ditu | | 6,7,8 |
| **Zabor-poltsak** | | |
| I motako ekoetiketaren baten baldintzak betetzen ditu | | 8 |
| Batere klororik gabe (TCF) | | 3,8 |
| **Eskuak lehortzeko papera** | | |
| % 100 birziklatua | | 3,8 |
| Batere klororik gabe (TCF) | | 3,8 |
| **Zabor-poltsak** | | |
| Polietilenozkoak edo polipropilenozkoak dira | | 3,8 |
| Gutxienez % 80 plastiko birziklatuzkoak | | 3,8 |
| **Tresnak eta makinak** | | |
| Trapuak eta mopak/lanbasak mikrofibrazkoak dira | | 2 |



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

**JARRAIBIDEAK**

**“Berme mota/memoriako orrialdea”** zutabean, baloratzeko zehaztapen edo irizpide bakoitza betetzen dela bermatzen duten ingurumen-ziurtapenak eta ekoetiketak txertatu dira, edo informazio hori izan dezakeen dokumentazioa. Dena den, beste ziurtagiri baliokide batzuk ere onartuko dira, betiere ezarritako irizpideak betetzen direla argi eta garbi frogatzen badute.

Zenbakiak bat datoz dokumentu hauekin:

| | |
|---|---|
| 1. Enpresaren adierazpena | 5. Europar Batasunaren Etiketa Ekologikoa garbiketa-zerbitzurako |
| 2. Deskribapen teknikoa | 6. Europar Batasunaren Etiketa Ekologikoa garbiketa-produktuentzat |
| 3. Fitxa teknikoa | 7. Zisne Nordikoa ekoetiketa, garbiketa-produktuentzat |
| 4. Segurtasun-fitxa | 8. Aingeru Urdina ekoetiketa, garbiketa-produktuentzat |



Elortza Plaza, 1 – 48610 URDULIZ – Telefonoa: 94 676 20 61 – Faxa: 94 676 42 40

## III.B. ERANSKINA: ENPRESA LIZITATZAILEAK PROPOSATUTAKO PRODUKTUEN ZERRENDA

Behar adina lerro gehitu:

| PRODUKTU MOTA | APLIKATZEKO GAINAZALA | FABRIKATZAILEA ETA IZEN KOMERTZIALA | ONTZIAREN BOLUMENA (LITROTAN) | ERABILERA DOSIA (ML/LITRO) | ARRISKU ESALDIAK (H) | ETIKETA EKOLOGIKOAREN IRIZPIDEAK BETETZEN DITU[2] |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ERABILERA ASKOKOA | | | | | | |
| ZORU GARBIGARRIA | | | | | | |
| KRISTAL GARBIGARRIA | | | | | | |
| GAINAZAL ZERAMIKOAK | | | | | | |
| DESINFEKTATZAILEA | | | | | | e.d.[3] |
| DEFINITU BESTE GARBIKETA PRODUKTU BATZUK | | | | | | |
| | | | | | | |
| KOMUNEKO PAPERA | e.d.[3] | | e.d.[3] | e.d.[3] | e.d.[3] | |
| ESKUAK LEHORTZEKO PAPERA | e.d.[3] | | e.d.[3] | e.d.[3] | e.d.[3] | |
| ESKUETARAKO XABOIA | e.d.[3] | | | e.d.[3] | e.d.[3] | |
| ZABOR POLTSAK | e.d.[3] | | e.d.[3] | e.d.[3] | e.d.[3] | |

2 Zehaztu zein den lizitatzaileak adierazitako produktuak duen ekoetiketa; edo, ziurtapen jakin bat izan ezean, zehaztu zer irizpide betetzen dituen produktuak.

3 Ez dagokio